


# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 209. alea - 2016ko uztaila



**Willy Berasaluzeren  
“Hutsuneak”,  
elizako klaustroan**





**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afarriak: 20:00 / 23:00

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



**Hazitik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com


kutxabank  
hemen  
eta orain **k**



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

 No. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komitaduen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

**ISABEL**  
**FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA  
943 029 186

**AZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**



JATETXEA

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI**  
**ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi****iko**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

209. alea - 2016ko uztaila

# AURKIBIDEA

## 06

### OHITUREI EUTSIZ

San Juan sua, Santa Katalinako hitzordua, zahagi erretzea San Pedro bezperan...



## 08

### ALBISTEAK

EkoLinguA, Gaztelekuko ekimenak, Kolorez Blai udalekuak...



## 10

### ELKARRIZKETA

Josune Arakistain lasturtarra, Huntza musika taldearen proiektuaz



## 14

### KIROLAK

Triatloia, Itxasmila, Surfing Deba Festa, Amaiak Baten denboraldi amaiera



## 16

### LITERATURA

Zuhatza Elkarteak eta Mendatak literatur lehiaketako sariak banatu dituzte



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbieta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Ander Salegi

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio


**Inprimategia:** Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazita-koen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.





**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Bakoitzak ahal duenetik emanaz, guztion elkarlanaz erabakiz

Erabakitzearen olatua hasi da jada EHn, ekainaren 5ean 30 herrik baino gehiagok erabakitzeko eskubidearen ariketa burutu zuten. Sukalde lanean lehenengo jendea elkartu eta galdera adostu; eta azkenik, galdeketa. Egindako galderak ez ziren berberak herri guztietan, baina parte-hartze prozesu baten ondorioz adostutakoak ziren.

Eta galdeketarako deituta zeuden herritarren %30 inguruk egikaritu zuen bere eskubide hau, galdeketa loteslea izan gabe ere. Jai giroan ospatu zituzten galdeketak.

Erabakitze eskubidearen ariketa egiteko ordua iritsi zaigu, guri ere. Debarrenan ere, hurrengo hilabetean hasiko gara martxan. Ariketa

demokratiko hau gauzatzeko, elkarte bat sortu beharko dugu erabakitze eskubidearen alde gauden guztion artean, ahalik eta berme gehienekin ariketa demokratikoa egin ahal izateko. Talde eragile honen eginbeharrak lirakeke galdeketa protokoloak aurrera eramatea (galdera zehazteko prozesua), ariketa berme gehienekin egiten dela egiaztatzeaz gainera (mahaiak, ikuskatzaileak...).

Talde eragile hau guztion artean sortu behar dugunez, irailean deialdi zabal bat egingo dugu ariketa hau denon artean antolatu dezagun.

GED ekimenak herritarren erabakitzeko eskubidea nabarmentzen duten eta barneratzaileak diren galderak sustatuko ditu eta Euskal Herriko herrita-

ron eskubideei loturiko galderak hobetsiko ditu, hala ere talde eragile horretan sortzen den galdera izango da aurrera aterako dena; izan ere, irabaztea parte-hartze ahalik eta handiena izatea da. Gogora dezagun erabakitzeko eskubidea oinarritzko eskubide demokratiko gisa ulertzen dugula.

Galdeketek ez dute ondorio juridikorik izango, baina politikoa izango dutenik inolako zalantzarik ez dugu, herritarren borondatea adierazten denean erantzuna eman behar zaiolako eta erantzun hori ezinbestez politikoa izango delako.

Anoetan esan bezala, erabakitzera goaz!

*Debako Gure Esku Dago*

## Gipuzkoa errauskailurik gabe!!



-ERRAUSTEGIEN INGURUAN MINBLAZIA IZATEKO ARRISKUA AREGOTU EGITEN DA.

Dozenaka ikerketa daude, baina bat aipatzearen: Carlos III Unibertsitatea (2013).

Minbiziak ez du bereizketarik egiten, ez klase sozial, arraza edo sexuen artean, ezta alderdi politikoen boto emaleen artean ere.

-GIPUZKOAN INOIZ EGON DEN LAPURRETA EKONOMIKO HANDIENAREN AURREAN GAUDE. Hasieran 300 milioi euroko kostua izango zuen eta orain 1.200 milioitara

iritsiko da. Eta horietatik %10 "garbi" enpresa pribatu baten akzionistek eramango dute. Eta zeinek ordainduko du? Herritarrok, gure tasen eta zergen bitartez.

-ZABORTEGIAK EZ DIRA KONPONBIDEA. Ez Epelen, ez Lapatxen

ezta Kantabrian ere. Soluzioa gero eta hondakin gutxiago sortzea da, ahalik eta baliabide gehienak berreskuratzea eta bakoitzak bere etxean hondakinak berezituak jasotzea.

*Deba Zero Zabor*



## Heriotza Samarkandan Farid al-Din `Attär

Goiz batean, hiri handi bateko kalifa batek bere lehen kontseilaria oso urduri eta kezkatuta ikusi zuen. Zergatik zegoen horrela galdetu eta bere kontseilariak esan zion:

-Mesedez, gaur bertan joan behar dut hemendik eta baimena eskatzen dizut horretarako.

-Baina zergatik?

-Gaur goizean, jauregira nentorrela plaza gurutzatzean, kolpe bat nabaritu dut sorbaldan. Bueltatu naiz eta heriotza ikusi dut niri begira-begira.

-Heriotza?

-Bai, heriotza. Ezagutu egin dut, beltzez jantzita eta xal gorri batekin zegoen. Hor zegoen, niri begira, beldurtzeko asmoz. Nire bila zebilen, segur nago. Laga niri hemendik ihes egiten eta beste hiri batera joaten. Nire zaldi hoberena hartuko dut eta gaur gauean Samarkandara iritsiko naiz.

-Egia izango ote da heriotza zela? Segur zaude?

-Erabat. Ikusi egin dut zu ikusten zaitudan bezala. Segur nago zu zarela eta segur nago heriotza zela. Laga joaten, mesedez.

Kalifak, zeinak bere kontseilariari maitasun handia zion, baimena eman zion joateko. Gizona bere etxera itzuli zen eta bere zaldi onena hartuta arrapaladan irten zen hiritik Samarkandara bidean.

Geroxeago kalifa, kezkatuta, mozorrotu egin zen eta jauregitik plazara joan zen. Bakarrik, heriotzaren bila ibili zen, aurkitu eta ezagutu zuen arte. Kontseilariak esan bezala, heriotza altua eta argala zen, beltzez jantzita zegoen eta bere aurpegia xal gorri batekin estalia zeukan. Merkatuan zebilen, talde batetik bestera, inor konturatu gabe, bere behatzarekin gizon baten lepoa ukitzen zuela, edo emakume baten besoa eta korrika zihoan ume bat saihestuz.



Kalifa heriotzarengana joan zen. Heriotzak, kalifa mozorroturik egon arren, ezagutu egin zuen eta makurtu egin zen bere aurrean errespetuz:

-Galdera bat daukat zuretzat –esan zion kalifak ahots apalez.

-Entzuten zaitut.

-Nire kontseilaria gizon gaztea da oraindik, osasuntsua, eraginkorra eta zintzoa segur aski. Orduan, zergatik gaur goizean jauregira zetorrela, ukitu eta ikaratu duzu? Zergatik begiratu diozu mehatxu aurpegiz?

Heriotzak, apur bat harrituta, honela erantzun zion kalifari:

-Ez nuen izutu (beldurtu) nahi. Ez diot mehatxu aurpegiz begiratu. Tope egin dugu eta, orduan, ezagutu egin dut, besterik ez. Ezin izan dut nire harridura ezkutatu eta berak hori mehatxu bezala hartu du.

-Zergatik harridura? –galdetu zion kalifak.

-Zergatik? –erantzun zion heriotzak-. Ez nuen hemen ikusterik espero. Gaur gauean hitzordu bat daukat berarekin Samarkandan.

*Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro*





[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



## Suaren bueltan, San Juan bezperan



## Santa Katalinan, biharamunean





## Zahagi erreak eta euskal dantzak San Pedro bezperan



## Bisitari kataluniar batek lortu du ikurrina, arbolara igota





## EkoLinguA: Eguneroko hizkuntza egoerei aurre egiten laguntzeko solas-jokoa



Beste hainbat udalerritan egin bezalaxe, ekainaren 25ean (larunbata), EkoLinguA solas-jokoa egin zen Deban, hizkuntza ekologian oinarrituta, haien gainean eztabaidatzeko kartajokoa. 40 lagun baino gehiago bildu ziren helburu horrekin plaza zaharrean.

Hizkuntz-istorio desberdinen aurrean izan ohi diren jarren eta portaeren inguruan ondorio batzuetara iristeko aukera izan zuten mahaiaren bueltan bildutakoek: betiko euskaldunak, euskaldundu direnak, erdaldunak, etorri berriak,... adin, jarduera eta euskararen inguruko jarrera ezberdinekoak; eta denen artean, ondorioak atera, euskararen erronkak mahai gaineratu, posizionatu eta eguneroko hizkuntza-egoerei aurre egiteko proposamenak egin zituzten.

Talde edo mahai bakoitzean hizkuntza-istorio desberdinak aztertu arren, ondorio berdintsuetara iritsi ziren guztiak. Besteak beste honakoak:

-Euskara ez da gurea: balio unibertsala eta iraunkorra du. Zentzu horretan, maileguan hartu dugun zerbait da eta ondorengoei transmititzea dagokigu.

-Hizkuntza ez da komunikatzeko tresna bat bakarrik. Hizkuntzarekin batera, kultura oso bat, mundu ikuskera partikular bat transmititzen zaigu. Aniztasuna ederra da eta beharrezkoa; aberastasuna.

-Berdintasuna ez da diferente daudenak berdin tratatzea.



Berdinak izan daitezen neurri eraginkorrak hartzea baizik. Ekitatea izan behar da helburu.

-Hizkuntza erabiltzeko aukera berdinak izan ditzagun, ezinbestekoa da ulermen maila oinarrizkoa guztiek izatea. Errespetua da berdintasunaren printzipioa.

-Gazteek ez dute euskara hizkuntza propio bezala sentitzen. Inposatuta sentitzen dute. Gaur egungo gizartea euskaldunagoa da baina ez euskaltzaleagoa.

Ondorio horietara iritsita, berriz, hona aurrera begira egindako/hartutako proposamen/konpromisoetako batzuk:

-Euskarari eustea. Erdaraz egiten dutenei (ulertzen dutela jakinda), euskaraz egiten jarraitzea.

-Lehenengo hitza euskaraz egitea, ondorengo hizkuntza-ohiturak bermatze aldera eta pertsonengan izan ditzakegun hizkuntz-aurreiritziak albo batera uztea.

-Aisialdiko, gozameneko, jarduerak euskaraz eskaini daitezten lan egitea: daudenetan euskararen erabilera bermatuz eta berriak sortuz.

-Euskaldun-berriei egindako ahalegina aitortzea. Euskaldundu nahi dutenei erraztasunak eman eta euskaraz egiteko aukerak eskaintzea: arnaguneak antolatuz, pazientzia erakutsiz, mintzalaguna moduko egitasmoak sendotuz...

*Udaleko Euskara Batzordea*

## Gaztelekuak irteerez eta ekimenez bete du uda sasoiko agenda

Gaztelekuan ekainaren 22an abiatu genuen aurtengo udako egitaraua, ETBko Gu Ta Gutarrak saioan parte hartzeko 46 gazterekin egindako irteerarekin, hain zuzen ere (alboko irudia egun hartakoa da). Harrezkero, eta uztaila amaitu bitartean, makina bat ekintza eta irteera egiten ari gara gazteekin. Zaragozako Murillo de Gallegon izan ginen, adibidez, rafting eta hydrospeed egiten, urte osoan ekimen hori autogestionatu ahal izateko lanean fin-fin aritu diren 15 urteko nerabeekin. Zumaian izan ginen surf paddlea praktikatzen inauterietan mozzorro show lehiaketa irabazi zutenekin (13 urteko hoge gazte dira), nazioarteko Donosti Cup futbol txapelketan lehiatu gara, Arcachoneko aquaparkera joan gara... eta beste hainbat ekintza ere aurreikusita dauzkagu gure agendan.



Guztia laburbiltzea zaila bada ere, *Berriketan*-en hurrengo alean aurtengo udak emandakoaren zati txiki bat erakutsiko dizuegu, irudien bitartez. Laster arte, beraz!

*Gaztelekuko hezitzaileak*



# Des-jolastuz ondo pasatzeko aukera eskaini ziguten Puski eta Txurruski pailazoek



Joan den uztailaren 5ean “Elkarrekin des-jolasten” emanaldia izan genuen Deban, Zuhatza Euskara Elkartek antolatuta. Puski eta Txurruski pailazo bizkaitarren ikuskizuna Luzaro eskolako

frontoian burutu zen, eguraldiak ez zuelako ahalbidetu hitzordua zumardian egitea. Familian sormena erabiliz gorpuzta eta gogo askatzeko jolasa proposatu zuten pailazoek eta euren ikuskizunare-

kin abiatu ditu Zuhatzak urtero uda sasoiaren haurrentzat “Udara Kulturaz Blai” lelopean antolatzen dituen ekimenak. Eskerririk asko emanaldira hurbildu zineten guztiei!

## Sudurrean gorri, bihotzean irri, Kolore Anitz bizi-bizi!

Uztailarekin batera hasi dira aurten Kolorez Blai udalekuak, eta ezin ditugu lerro hauek hasi izena eman duzuen guztioi eskerrak eman gabe. Urtetik urtera parte-hartzaile kopurua nabarmen igotzen ari da eta aurten guztira 263 gara!! Oso pozik gaude eta, zalantzarik gabe, honek indarrak ematen dizkigu aurrera jarraitzeko eta gauza berriak egiteko.

“Diafragma dantzan, poza digestioan, 12 aire litro biriketara eta arnasa firin-faran!”. Aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, lehen txandan murgilduta genbiltzan Itziarren eta Deban. Ekintza, jolas eta abestiz beteriko hamar egun izan ditugu elkarrekin gozatzeko. Bigarren txanda uztailaren 18tik 29ra izango da, eta herriko handitxoagoek ere primeran pasatzeko mila aukera izango dituzte.



Besterik gabe, uztail koloretsu bat pasako dugulakoan, besarkada handi bat udalekuetako begirale guztien partez!

*Kolore Anitz taldeko begiraleak*

## “Zubiak eraikitzen” aldizkaria argitaratu dute

“Zubiak eraikitzen. Ideiak elkar trukatzeko. Elkar bizitza sustatzen”. Horixe da Jose Luis Albizuk, Lukax eta Nagore Dorronsorok kaleratu duten aldizkari berriaren izenburua. Deba ibaiako zubiek urteak bete dituzte, 150 urte harrizko zubiak eta hamar urte metalezkoak. Eta hori oroitzera dator, hain zuzen ere, argitalpena, beste hainbat kontu jasotzen baditu ere. Nelson Judek saltzen ditu aleak kalean eta Buru Zuri tabernaren parean egoten diren Carlos eta Esterrek ere saltzen dituzte (lau euroren truke).



## JOSUNE ARAKISTAIN, *Huntza* taldeko kidea

**“Ez zaigu gure musika estiloa definitzea gustatzen. Gustatzen zaiguna jotzen dugu, konplikaziorik gabe”**



Hiruzpalau hilabete dira lehenbizikoz *Huntza* musika taldearen berri izan genuenetik. Martxoaren 8aren bueltan kanta berezi bat (“*Harro gaude*”) kaleratu zuten eta bideoklipa 11.000tik gora lagunek ikusi dute dagoeneko. Ohiko erromerietako soinutik harago doazen elementu bereizgarriak bilatzen ditu *Huntzak*, eta trikiti doinuak presente daude Josune Arakistain lasturtarraren eskutik. *Berriketan* aritu gara berarekin, talde gazte honen proiektua eta bere ibilbidea zertxobait gehiago ezagutu nahian.

**Noiz eta nola sortu zen *Huntza*?**

Bilboko unibertsitario giroan sortu zen *Huntza*. Ostegunetako trikipoteoetan hasi... eta taldea osatzen amaitu genuen.

**Aurkeztu zuen buruak. Zeintzuk dira taldekideak?**

Biolin-jolea Aitor Huizi hernaniarra da. Pandero-jolea eta bigarren ahotsa ere Hernanikoa da, Uxue Amonarriz. Gitarrista Aitzol, eta baxu-jolea Inhar, Ataungo anaiak dira. Bateria-jolea Peru Altube da, Arrasatekoa. Eta trikitixa eta ahotsa, Josune Arakistain, Lasturkoa.

**Zergatik “*Huntza*” izena?**

Jaialdi baterako gure taldearen izena behar zuten bai ala bai, eta azkeneko momentuan bat-batean Aitzolek proposatutako “*Huntza*”-k egin zuen aurrera. *Huntza* landare igokari bat da, hormetan eta zuhaitzetan gora igotzen dena, zentzu polita hartzen diogu behetik gora joate horri.

**Zelan definituko zenue zuen musika? Erromeria taldea da zuena?**

Ez zaigu gure musika estiloa definitzea gustatzen, gustatzen zaiguna jotzen dugu, konplikaziorik gabe. Bakoitza estilo batetik datorren musikaria da eta denok dugu taldean gure txokoa. Ez diogu trikitixari protagonismo guztia eman nahi (nahiz eta garrantzi handia duen), hori izaten baita erromeria taldeen ardatza; beraz, ez gara erromeri talde bat kontsideratzen.

**“*Gutako bakoitza estilo batetik datorren musikaria da eta denok dugu gure txokoa taldean. Ez diogu protagonismo guztia trikitixari eman nahi*”**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira kaleratu zenuten “*Harro gaude*” abestia eta bideoklipa. Milaka lagunek ikusi zaituztete harrezkero. Zuen “*aurkezpen txartela*” izan al zen nolabait?

Bai, hori da. Duela bi urte sortu zen taldea, lagun artean, eta disfrutatzea zen kontua. Lehenengo urtean ez genien gure buruei helbururik jarri eta elkar ezagutu genuen. Bigarren urtean, ordea, gure musika zabaltzeko ordua zela ohartu ginen, egiten ari ginena jendeak ezagutu zezan. Hortik “*Harro gaude*” kanta.

**Norenak dira kanta horren hitzak? Zer dio abestiak?**

Iñaki Gurrutxagarenak dira letrak, itzalpetik plazetara salto egin zuten emakumeak omentzen ditu bertan.

**Aieka estudioan ibili zarete grabaketa lanetan. Zer moduzkoa izan da esperientzia?**

Oso esperientzia polita eta interesga-



ria izan zen, ez baita egunero abesti bat grabatzen!

### **Zenbat abesti grabatu dituzue?**

Bakarra. Oraingo, *kar-kar*.

### **Diskoa kaleratzea da zuen helburua? Laster etorriko al da urrats hori?**

Ez dugu helburu bezala hartu nahi diskoa kaleratzea. Hala ere, baditugu geuk sortutako kantak, eta gustatuko litzaiguke noizbait grabatu eta, guk gozatzen dugun bezala, jendeak ere gozatzea. Beraz, baliteke laster iristea disko hori...

### **Zuzeneko emanaldietan ere aritzen zarete, ezta? Zer moduzko harrera izan duzue orain artean?**

Bai, hala da. Oraindik zuzeneko gutxi eman ditugu, baina uda hasi besterik ez da egin eta joango gara motorrak berotzen!

### **Ohiko erromerietako soinutik harago doazen elementuak bilatzen dituzuela entzun dugu. Zuzena al da hori? Eta, hala bada, zer nolako elementuak lirateke ba horiek?**

Bai, guk hala uste dugu behintzat! Denok gazteak gara eta instrumentu guztiei garrantzi bera ematen diegu, nahiz eta trikitixa den gehien nabarmen-tzen dena. Biolin-joleak aire irlandar bat ematen dio gure musikari eta gitarristak, baxuak eta bateriak rock puntu bat.

### **Zuek sortutako piezak eskaintzen dituzue?**

Baditugu guk sortutako piezak, baina beste talde batzuenak ere jotzen ditugu.

### **Non ikusi ahal izango dugu Huntza aste edo hilabeteotan? Kontzertu berriak dituzue aurreikusita?**

Bai, uztaileko kontzertu dezente ditugu aurreikusita: uztailearen 2an Iurretako Amata auzoan esaterako, uztailearen 11n Iruñeko San Ferminetan, uztailearen 16an Antzuolan, hilaren 22an Etxebarrin, uztailearen 30ean Azpeitian...

### **Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahiko zenuke?**

Giro ezin hobea dugula taldean, eta hori dela gure musikaz transmititu nahi duguna!

## **“Sorkuntza eta herrikuntza ezinbestekoak direla iruditzen zait, beti betikoa entzuten ez egoteko”**

Trikiti doinuak jartzen dituzu zuk taldean, baita ahotsa ere... eta gogoan dugu lehendik ere trikitiaren munduan murgilduta ezagutu zaitugula. Euskal Herriko Trikitilari Gazteen txapeldun izan zinen 2014an Alaitz Eskuderoekin batera. Atzean utziak dituzu txapelketak?

Bai, hori da. 4 urtez txapelketetan ibili eta gero, 2015eko Euskal Herriko azken txapela irabazi ostean etapa hau amaitu zela erabaki nuen. Lehiatzeari utzi eta trikitixa beste modu batean hartu nahi nuen, zerbait berria probatu... talde bat sortu, esaterako.

### **Trikiti zaletasuna etxetik dator kizu, Josune? Txikitatik?**

Bai, txikitatik eta etxetik. Familian trikiti zaleak izan dira eta batez ere 9 bat urterekin txapelketetara Xabier Etxaniz ikustera joaten nintzanean sortu zitzaidan trikitixarako dudak grina hori. Gerora Jagoba Urangak txapelketetako munduan murgildu ninduen eta asko eskertzen diot.

### **Zelan ikusten duzu erromeriarren egoera gaur egun?**

Festetan bere txokoa dute erromeriek, dudarik gabe, baina bada zerbait erromeria talde askotan kontzentzitzen ez nauena. Sorkuntza eta herrikuntza ezinbestekoak direla iruditzen zait, beti betikoa entzuten ez egoteko. Faltan botatzen dut kotxean lehengo erromerien (Etzakit, Gozategi...) CDak jartzen ibili beharrean gaur egungo CDak jartzea.

### **Bestelako musika estilo batzuetan ere probatu nahi izan duzu?**

Egia esan ez... oraingo oso gustura nago Huntzarekin eta ez dut beste tentaziorik, estilo guztietako kantak jotzen baititugu, rocka, folka, ska, euskal musika...

### **Zer da musika zuretzat, Josune?**


Oso galdera zaila da... Mila aldetatik bizi daiteke musika. Jotzean, entzutean... desberdina da, eta aldi berean horrek erakartzen nau.



# Espainiako Gorteetarako hauteskundeen emaitzak Deban

## KONGRESURAKO HAUTESKUNDEAK 2016 | Udalerria: DEBA

Zenbaketa %: 100,00  
 Errolda: 4.281  
 Boto-emalleak: 2.813 (%65,71)  
 Abstentzioa: 1.468 (%34,29)  
 Ballogabeak: 11 (%0,39)  
 Zuriak: 19 (%0,68)  
 Zerrendei botoak: 2.783 (%98,93)



Ekainaren 26an ospatutako Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan EAJ izan da alderdi bozkatuena Deban, 958 botoekin (%34,06), 2015eko abenduko hauteskunde orokorretan baino 106 boto gutxiago lortu baditu ere. Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak 737 boto lortu ditu, bigarren indar bozkatuena izanik (%26,2), eta EH Bilduk 684 boto jaso ditu (%24,41), duela urte erdi baino 166 boto gutxiago. Itziarren, ordea, EH Bildu izan da bozkatuena (214 botorekin), eta EAJk 144 jaso ditu.

Logo	Hautagai-zerrenda	Kolorea	Botoak	Botoen %
	EAJ-PNV		958	34,42
	UNIDOS PODEMOS		737	26,48
	EH Bildu		684	24,58
	PSE-EE (PSOE)		203	7,29
	PP		136	4,89
	C's		44	1,58
	PACNA		16	0,57
	RECORTES CERO-GRUPO VERDE		2	0,07
	UPyD		1	0,04
	PCPE		1	0,04
	P-LIB		1	0,04

Iturria: Barne Ministerioa

PSE alderdiak 27 boto gehiago jaso ditu azken hauteskunde hauetan, guztira 203 boto lortuta (%7,24), eta PPK antzeko emaitzak lortu ditu, 136 boto jasota (orain urte erdi baino 14 gehiago). Berdintsu mantendu da Ciudadanos ere: 44 boto orain eta 48 abenduan.

Hauteskunde hauetako parte-hartzea %65,71koa izan da Deban. Erroldako zerrendan zeuden 4.281 hautesletik 2.813k eman dute euren botoa.

## Bi irteera gidatu estreinatu ditu Geoparkeak udako denboraldian

Uda sasoiarekin batera, Euskal Kostaldeko Geoparkeak bere eskaintza turistikoa hobetu eta indartu nahi izan du. Hori dela eta, ohiko proposamenez gain, ekainaz geroztik abian dagoen Bisita Gidatuen Programa berriak bi ekimen berri jasotzen ditu. Batetik, "Geoparkeko herriak" deritzona, Debako, Mutrikuko eta Zumaiaiko kultur eta itsas ondarea ezagutzera ematen duen irteera gidatua. Bisita bakoitza hiru herrietako batean egiten da. Bertan, bisitariak itsasoari eta itsas kulturari estu lotutako herri bat deskubrituko du, alde zaharreko eraikin eta monumentu nabarmenak bisitatuz. 90 minutuko iraupena izango du.

Umeei eta familiei zuzenduta dago bigarren proposamena: "Lasturko plaza". Izenak dioen moduan, Lasturko bailarran burutzen da eta umeak dira protagonista euskal jolas tradizionalak berreskuratu eta sustatu nahi dituen proposamen honetan. Esperientziak hiru orduko iraupena du. Errota zaharrean artoa eho ondoren, talo tailerrean parte hartzen dute familiek eta, indarrak hartu ostean, Lasturko plazan



elkartu eta euskal jolas tradizionalak aritzeko aukera dute: txingak, sokatira, lokotx biltzea, zaku lasterketa... Lasturren bertan zabaldu berri den Geoparkearen interpretazio gunea ezagutzeko osatu daitezke bisita gidatua.

Proposamen berriekin batera, ohiko ibilbide turistikokoak eskainiko dituzte: itsasontzian irteerak, ibilbide geologikoak eta kulturalak, barnealdeko bailarak ezagutzeko jarduerak...

Bisita gidatuen egutegi osoa [geoparkea.com](http://geoparkea.com) webgunean kontsulta daitezke eta bertan egin daitezke erreserbak online.



## Willy Berasaluzeren “Hutsuneak”, Santa Maria elizako klaustroan



Artelanez jantzi dute aurten ere Santa Maria elizako klaustroa. Udako erakusketa artistikoaren XII. edizioa da aurten goa eta Willy Berasaluzeren lanak ikusteko aukera eskaintzen zaio bertan bisitariari.

Uztailaren 2an inauguratu zen erakusketa, artistaren presentziarekin. Eta katalogo bat ere aurkeztu dute, egilearen ibilbidea eta obraren zertzelada batzuk ardatz hartuta –Pedro Bengoetxea alkatearen eta Mikel Camporen hitzak jasotzen ditu argitalpenak–.

Berasaluzek “Hutsuneak” izenburupean aurkezten ditu bere azken lanak klaustroan. “Sortzen den espazio orok bete ezin den hutsunea sortzen du. Hori da Willy Berasaluzek erakusketa honetarako proposatzen diguna –azaltzen du Mikel Campok–. Erakusketa aberatsa da ñabarduretan eta hautsi egiten du egileari buruz daukagun irudia; orain arte, izan ere, sormenerako ironia baliatu izan duen egiletzat hartu izan dugu”. “Aurkezten digun proposamenak, ordea, zerikusi gehiago dauka poesiarekin, bizitutakoarekin eta sentitutakoarekin”, argitzen du Campok. “Hutsunea norberak bere barren-barrenean sentitzen duenari, collage horietan batera-

tzeko joera antzematen da: formalki, masa, kolore eta konposizio desberdinetako lanak dira, baina guztiek artistak proposatzen digun lekura garamatzate; hau da, gure bizitzetan gertatzen den hutsuneaz, gertatzen diren hutsune ugarietz hausnartzera; azken batean, ondo dioen moduan, hutsuneak bete ezinak baitira”.

Tamaina erdi eta handiko pinturak osatzen dute “Hutsuneak” bilduma. Itxura batean, artistak erabilitako teknika sinplea da: paper itsatsiak, desitsatsiak, urratuak, bere sormen-bidea erakusten duen collagea. Obra gauzatzeko, erai-ki eta suntsitu egiten du, urratu eta itsatsi, berriro konpondu eta esanahi berria ematen dio. Kentzen edo gehitzen duen geruza bakoitzeko esanahi berri bat, interpretazio berri bat agertzen da inplizituki, gure memoriarekin gertatzen den bezalaxe. Gure bizitzako collagea da, itxura batean soila, itxura batean erraza, artistaren teknika bezalakoa. Itxura batean.

Deban aski ezaguna den Willy Berasaluzeren lanak irailaren 5a arte egongo dira ikusgai klaustroan. Asteartetik larunbatera bitartean 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik erakusketa. Igandetan, berriz, 17:00etatik 20:00etara.

## Ohorezko matrikula Batxilergoan

Dagoeneko oporretan daude Batxilergoko ikasleak. 2015-2016 ikasturtea ekainean amaitu dute eta selektibitatea ere egin behar izan dute askok.

Elgoibarko Arreiturre institutuko arduradunek jakinarazi dutenez, argazkian ageri diren ikasle horiek badute motiborik pozik egoteko, bostek eskuratu baitituzte ohorezko matrikulak Batxilergoan. Espediente akademiko onena lortu duten bost gazteak ageri dira irudian. Ezkerretik eskuinera: Joseba López, Libe Garate, Ane Masach, Udane Oiartzabal eta Egoitz Maiora. Arreiturre institutuko ikasleak dira guztiak, eta horietako bi debarrak dira (Masach eta Oiartzabal). Zorionak!

Elgoibar Arreiturre BHIko lan-taldeak “zortzerik onena” opa die ikasleei orain hartuko dituzten bide berrietan.





## Ibone Sanchez eta Mikel Ugarte nagusitu dira triatloian



Ander Salegi



Ander Salegi

Zortzigarren edizioa izan du aurten Debako Triatloiak. Uztailaren 2an (larunbata) burutu zen lehia, Deba-Itziar Xtrem Taldeak, Gipuzkoako Triatloi Federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuta.

Lasterketa sprint modalitatean jokatu zen -750 metro igerian, 25 kilometro bizikletaz eta 5,2 km. korrika-, eta Euskal Herriko triatloi zirkuituko hamaikagarren proba puntuagarria izan da. Guztira 216 kirolarik lortu zuten triatloia amaitzea. Saillkapen nagusian, Ibone Sanchez laudiotarrak lortu zuen lehen postua emakumezkoetan (1:18:47ko denborarekin) eta Mikel Ugarte oñatiarra izan zen azkarrena gizonezkoetan (1:11:09ko denborarekin).



Ander Salegi

### 146 igerilari bildu ditu aurtengo Itxasmilak

Uztailaren 3an (igandea) jokatu zen IX. Debako Itxasmila, Mutriku-Deba itsas zeharkaldia. Aurreko edizioekin alderatuz gero, aurtengoak berritasun nagusi bat izan du: igeriketa proba Mutrikuko portutik abiatu zen. Helmugara (Debako hondartzara) iristeko, 3.000 metroko ibilbidea osatu behar izan zuten parte-hartzaileek.

Haurren proba ez zen egin azkenean, izena eman zuten kopuru txikia zela eta. Helduen atalean, berriz, 146 lagunek lortu zuten ibilbidea osatzea -27 emakumezko eta 119 gizonezko-, tartean herriko hainbat igerilari zirela.



Ander Salegi

Ana Vega donostiarra nagusitu zen saillkapen nagusian, eta Haigor Aranguren izan zen azkarrena gizonezkoetan. Herriko partaideen artean, Gotzone Aizpurua eta Oier Perez izan ziren tre-



Ander Salegi

beenak.

Aurten ere, Itxasmilak Esklerosi Anitzaren Fundazioak bultzatutako "Busti Zaitetz" kanpainarekin bat egin du.



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)





## Abuztuaren 5etik 7ra bitartean ospatuko da aurtengo Surfing Deba Festa

Hiru eguneko egitaraua dakar aurtengo Surfing Deba jaialdiak. Abuztuaren 5ean (ostirala) abiatuko dira ekimenak, Deba ibaiaren igoera herrikoia antolatu baita arratsaldeko 17:00etarako. Eta, iluntzean ikusleentzat lancha eskaintzeaz gain, gaueko 22:30ean “Euskal balearen ehiza” izenburuko bideoa proiektatuko da plaza zaharrean.

Abuztuaren 6an (larunbata), eguerdian, Cross-Fit erakustaldia izango da Ondargain parean. Eta, gainera, 10:00etatik 12:00etara bitartean surfa praktikatzeko ate irekien jardunaldia ere egingo da (Zurrumbiloko lokalaren bueltan). Eguna amaitzeko, beste hainbat ekimenez gain, musika kontzertua egingo da Ondargainen (22:00etan).

Abuztuaren 7an ere ekimen ezberdinak izango dira aukeran. Hasteko, triatloi familiarra burutuko da hondartzan, 11:00etatik aurrera. Arratsaldean hiru hitzordu egingo dira: akuatloia ibaian, kayak eta piraguen ate irekien jardunaldia eta waterpolo partida. Eta, arratsaldeko 18:00etan parte-hartzaileek lancha izango dute portuan.



Surfing Festako arduradunek ohartarazi dutenez, behin-behineko egitaraua da hau. Baliteke, beraz, azken orduan hainbat aldaketa egitea.

### Batzar orokorra eta bazkaria Amaikak Baten denboraldia amaitzeko

Pasa den uztailaren 2an (larunbata), Amaikak Bat Futbol Taldeak urteroko batzar orokorra izan zuen Kultur Elkartean eta bazkari herrikoia ere egin zuen gero, Aldats pilotalekuan. Klubeko talde guztietako jokalariek izan ziren bazkarian, baita hainbat zale ere, eta guztira 380 lagun elkartu ziren denboraldiari amaiera emateko hitzorduan –Errealeko eta Federazioko ordezkariak ere izan ziren bertan–.

Paella erraldoia dastatu ostean, urtero bezalaxe, talde bakoitzeko jokalaririk trebeenek sariak jaso zituzten zuzendaritzako kideen eskutik.



Ander Salegi



# LITERATUR LANAK 2016

“Zumardiko kioskoa” izan da aurten Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako literatur lehiaketarako hautatu den gaia. Ekainaren 14an banatu ziren sariak; kurtso bakoitzean aurkeztutako lan guztien artean, epaimahaiak bi idazlan saritu ditu aurten. Horietako lan batzuk bildu ditu *Berriketan* aldizkariak, zuek guztiok ere irakurtzeko aukera izan dezazuen. Ale honetan, lehenengo eta bigarren mailan lehen saria eskuratu duten lanak dituzue -abuztuan ikusiko dute argia 3. eta 4. mailako ikasleenak-.

Lehenengo mailan June Rodriguezek lortu du lehen saria eta Eider Itxasorentzat izan da bigarrena. Uxue Egaña nagusitu da bigarren mailan, eta Pablo Ronen idazlanari eman dio epaimahaiak bigarren saria kategoria horretan. Aipatutako irabazle guztiak alboko argazkian dituzue, Jokin Lasa irakaslearekin eta Zuhatza Euskara Elkarteke Iñaki Elosuarekin.



## ZUMARDIKO KIOSKOA

### Aspaldiko lagun maitea.

Zer moduz zaude? Ni naiz, bi mototseko bost urteko neskatxa. Horrenbeste bisita egiten zizkizun hori. Aspalditik ez dizut hitz egin, edo ez dizut idatzi. Askotan ikusten zaitut, beti toki berean, modu berean. Zahartu egin zarela nabaritu dut, baina zu ez zara aldatu den bakarra. Orain hamahiru urte ditut, eta ez dut mototsik erabiltzen, kirola egiten ez banabil. Ilea asko argitu zait eta aurpegiko pekak ez zaizkit ia ikusten. Baina, hori gutxienekoa da. Ez naiz lehen nintzen neska baldarra, orain ez naiz jartzen naizen toki guztietan erortzen. Ez naiz hain zikina, izozkiaren arrastoa ez zait kopetaraino iristen eta. Ez naiz hain ausarta, orain ez nintzen zure besoetara igoko, bertan buruz behera irrist egiteko. Baina oraindik asko gustatzen zaizkit sekretuak.

Gogoratzen zara? Lehen sekretuak aldatzen ginen. Nire gustukoena, nire lagun bati gainean pixa egiten ikusi zenionekoa da. Barre pila bat egin nuen, eta hurrengo egunean, eskolan, banekiela esan nionean, aho bete hortz utzi nuen gizajoa. Trukean, asteburu hartan merkatua jarriko zutela zu beti zauden tokian kontatu nizun. Asko gustatu zitzaizun ideia, batez ere jendez inguratuta ibili zinelako. Beti gustatu izan zaizu begirada guztien jatorria izatea. Nik esango nuke, lehen jaialdiak, kontzertuak eta abar egiten zirelako zure inguruan. Zu beti zauden tokian.

Noiz eta nola etorriko zinen? Auskalo. Nik dakidana hemen zaudela da. Hemen, nirekin, berriz sekretuak aldatzeko, lagun izateko, ... berriz, zure alboan egon nahiko nuke, galdutako denbora guztia irabaziz. Denboran galdu-

tako sekretuak kontatuz, bata besteari, lehen bezala, momentu polit haietan bezala. Ni banatu naiz zutaz, ez zu nitaz, eta horregatik galdera batzuk ditut zuek erantzuteko: Nahi duzu, berriz ere, nire laguna izan? Nirekin lehen bezala sekretuak aldatu? Momentuak igaro?... Nahiko zenuke berriz ere nire ametsak entzun? Denbora galdu da, pasa da, baina nire ametsak, gogoak, eta irudimenak hor jarraitzen dute, duela urte batzuk lagatuko tokian, orain mototsik gabeko ile luzearen azpian. Bi gomek, bi mototsek edo zortzi urtek ez dute hori guztia aldatu. Zuk zeuk erakutsi zenedan eta, urteek eta egoerek, gertatutako gauza guztiek, ez dizutela aldatu beharrik. Hortxe zaude zu, betiko tokian, beti bezala, gertatu zaizkizun gauza guztien ondoren. Asko estimatzen dut zuegan jarrera hori, ene lagun maitea.

Badakit oraindik ez dudala erantzunik jasoko, hortaz, “arriskatzea” erabaki dut, nire laguna berriz izatearen galderari baietz erantzungo diozula pentsatuz “arriskatzea”. Lehen sekretua kontatuko dizut, aspaldiko partez. Momentu honetan, eskutitz honetan, egokiena eta garrantzitsuena iruditzen zaidana.

FALTAN BOTATZEN ZAITUT, ENE BIHOTZEKO KIOSKO MAITEA

Hurrengo sekretua zuk kontatuko didazunaren esperoan,  
motots gabeko neska BERDINA.

*June Rodriguez*  
1. MAILAKO LEHEN SARIA





## ZIPRIZTINEZ BUSTIA

**Egunero, nire aitarekin paseotxo bat ematen dut.** Egunero, aterkiarekin, sandaliekkin, txaketarekin, soinekoarekin ibiltzera joaten naiz. Egunero, aitaren esku zabal eta latzari nire eskutxo txikia ematen diot. Egunero, hostoak lurrean, haizearekin firin-faranean, zuhaitzetatik irteten, elurrarekin estaliak edo ia historik geratzen ez denean, ni, zuhaitzen artetik korrika ibiltzen naiz. Egunero, parketik ibiltzean beste guztia ahaztu eta aitarekin buelta bat bakarrik ematen dut.

Gaur euria ari du, txaketa eta botintxoak ditut jantziak, aterkia esku batean eta aita bestean. Lurrean putzuak daude eta heldurrik gabe egiten dut salto haietara, zipriztinez blai egitea gustatzen zait. Parkean ez dago inor, bakarrik gaude, baina kiosko paretik pasatzean gizon batekin gurutzatu naiz. Gizona geldirik dago kioskoari begira eta bustitzen ari da. Agian, niri putzuetako zipriztinez bustitzea bezala, gizonari euri zipriztinez bustitzea gustatzen zaio. Nik, nire aita ez bezala ulertzen diot, aita pentsatzen du behin heldua izatera iristean ez zaizula bustitzea gustatzen, ezta putzuetara salto egitea ere, ezta zuhaitzen artetik mugarik gabe korrika egitea ere. Nik, ordea, nahiz eta zazpi urte izan, uste dut guztiok dibertitzen garela helmugarik gabe, beste ezertan pentsatu gabe, zerbait egitean. Gizonak, kioskoa begiratzeari utzi eta niri begiratu dit bere begi ilun-ilunekin eta tristuraz heterikoekin. Nik ez diot berari begiratzeari utzi, biok elkarri begira gaude. Aurpegi atsegina du, karratu itxurakoa eta sudur handia, baina triste dago. Bere begi handiak malkoz beteak daude, distira egiten dute, dena den, ez zaio malkorik ihesten bere begietako putzuetatik. Baina, halako batean, begiak kendu ditu. Nik hari begira jarraitzen dut, baina bera aurpegia ezkutatu joan da, poliki-poliki.

Gaur, zerua urdin-urdina dago, ez dago ez laino zuririk ez grisik. Soineko hori bat dut jantzia, eguzki-lore kolorekoa. Belar berdearen gainetik nabil korrika beste haur guztien artean. Gaur ere, kiosko paretik pasatzean atzoko gizon hura ikusi dut eta bere aurrean geratu naiz. Berak niri begiratu dit eta nik berari begiratu diot. Aurpegi alaia dauka, begiak argitu zaizkiola ematen du eta ia-ia irribarrea irteten zaio. Nik begietara begiratu eta irribarre txiki bat egin diot, baina berak ez dit erantzun. Orduan,

buruari bira erdia eman dio eta joan egin da nire begietatik ezkutatu arte.

Orain, egunero, kioskoko gizona ikusten dut: eguzkia dagoenean, euritan, elurretan... Egunero, berari begira geratzen naiz eta bera niri begira. Egunero, hitzik gabe geratzen gara, zer esanik gabe, askotan ez da hitzik behar elkar ezagutzeko eta elkar ulertzeko. Egunero, berak buruari buelta eman eta nigandik urruntzen da.

Gaur ere, kiosko parean, elkarri begira geratu gara eta irribarre egin diot. Eta halako batean, bere aurpegian irribarre bat zabaldu da. Ni barrez hasi naiz eta bera ere bai, ezin zion eutsi. Horrela segundoak eta minutuak pasa ditugu, gelditu gabe. Baina, azkenean, amaitu ditugu gure algarak eta irribarre batekin bira eman eta joan egin da.

Gaur, txaketa bat dut jantzia, zerua ilun dago, nahiz eta euri tantarik erortzen ez den. Ez dago putzurik, baina belarretatik korrika ibiltzean oinak bustitzen zaizkit. Tarteka, eguzki izpiak iristen zaizkit, lainoen artetik ihesi ibiliko balira bezala. Baina gaur ez da eguneroko eguna, gaur kioskoko gizona aurkitu ez dudana eguna da. Kiosko parean inor ez dagoela ikustean nire begietako tantak beraien putzuetatik irten dira. Tanta hauek ez dute esan nahi triste nagoenik, ezta pozik nagoenik ere, negar egiteko gogoia dudalako bakarrik erortzen zaizkit.

Gizon hartaz pentsatzean zenbatu ezin ditudan bezainbeste galdera etortzen zaizkit burura, baina galdera hauek ez dute garrantzirik. Gizon hura ezagutzen dut, bere begiekin, beste inork ez bezala, behar nuen guztia azaltzen zidalako. Beno, kioskoari begiratu eta ulertzen ez dudana galdera bat bakarrik dut: zer edukiko ote du kiosko honek egunero geldirik eta hitzik esan gabe honi begira geratzeko?

Egunero, kioskotik pasatzean, geldirik eta hitzik gabe, hari begiratu eta buruan dudana galderaren erantzuna aurkitzen saiatzen naiz.

**Uxue Egaña**  
**2. MAILAKO LEHEN SARIA**



# AGENDA

## UZTAILAK 22, OSTIRALA

-22:00. **Kontzertua: "Neighbor"**, Maite Larburuk eta Josh Cheathamek osatutako bikotea: jazz, folk eta pop musika (*Iturri ondoan*).

## UZTAILAK 23, LARUNBATA

-20:30. **Kontzertu solidarioa**, San-eko (Mali, Afrika) umeen eskolatzearen onerako. Aitzuri Abesbatza, Kamara Orkestra eta solistak. Santa Maria Elizan.

## UZTAILAK 24, IGANDEA

-Xake Txapelketa: Deba Hiria. Foruen plazan.

-20:00. **Daniel Oyarzabalen organo kontzertua: "Orkestraren Transkripzioak"**, Santa Maria Elizan.

## UZTAILAK 29, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

-21:30. **"Deba eta San Roke"** liburuaren aurkezpena, plaza zaharrean.

## UZTAILAK 30, LARUNBATA

-20:00. **Debako Musika Bandaren kontzertua**, elizako klaustroan.

## ABUZTUAK 5-6-7

-III. **Surfing Deba Festa** (ikus egitaraua aldizkariko 15. orrialdean).

## ABUZTUAK 6-10

-Kopraixak Itziarren.

## ABUZTUAK 6, LARUNBATA

-16:00. **Itziar Trail mendi lasterketa**, Itziarko Auzo Udalak antolatuta.

## ABUZTUAK 7, IGANDEA

-20:00. **Kontzertua: "Havana 537"** (musika kubatarra). Emanaldiaren aurretik dantza ikastaroa egingo da, zumardiko kioskoan.

## Debako

### XXXIII. Udako Musikaldia

Hiru kontzertu antolatu dira aurtengo Udako Musikaldiaren baitan:

\***Abuztuak 4: Bay Trio** (biolin, tronpa eta piano hirukotea).

\***Abuztuak 11: Ana Belén García & Hondore Abesbatza**.

\***Abuztuak 25: Andoni Mercero** (soka laukotea).

*Emanaldiak elizako klaustroan burutuko dira, abuztuko hiru ostegunetan. Iluntzeko 20:00etan emango zaie hasiera.*

### Udako ordutegia liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegiarekin jarraitzen du.

\*Liburutegi orokorra: astelehentik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Abuztuaren 15etik 19ra arteko astea itxita egongo da, herriko jaiak direla eta.

## KOPRAIXAK ITZIARREN

### Abuztuak 6, larunbata:

12:00. Frontenis txapelketa (finala). 16:00. Itziar Trail. 16:15. Haur krosa. 18:30. Kalejira bandarekin. 19:00. Txupinazioa. Marixiren jaitsiera. Ondoren, danborrada. 20:30. Meza eta salbea. 00:00. Dantzaldia Egan taldearekin.

### Abuztuak 7, igandea:

07:00. Zezenak. 11:30. Meza. Ondoren, txakolin dastaketa eta Aimar Irigoien harrizotasunaren erakustaldia. 18:00. XIII. Dantza Solteko Txapelketa, Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariarekin. Ondoren, errekortariak eta zezenak. 23:00. Aukeran dantza taldearen "Maurizia" ikuskizuna.

### Abuztuak 8, astelehena. Bikoteen Eguna:

11:00. Meza. 11:30. Kalejira Jan Da Eran txarangarekin. Ondoren, sagardo dastaketa, bertsolariak lagundurik. 14:30. Herri bazkaria frontoian. 18:00. Bikoteen arteko dantzak eta jolasak. Ondoren, aureskua eta zezenak. 23:30. Erromeria Gaubela taldearekin. 01:00. Sagar dantza.

### Abuztuak 9, asteartea.

**Umeen Eguna:**  
10:30. Meza. 11:00. Umeen arteko jolasak. 11:30. Kalejira Jan Da Eran txarangarekin. 13:00. Entzierroa, zezenak eta pottokak. 14:00. Umeen bazkaria. 17:30. Euskal dantzak eta aerobic. Ondoren, umeen jolasak,

zezenak eta pottokak. Jarraian, buruhandiak... 22:00. Karaokea plazan. 22:30. Koloretako Festa DJ Josu Rodriguez eta Lainekin. 23:30. Nagore&Maria, euskal kantak Burugorri.

### Abuztuak 10, asteazkena.

#### Gazteen Eguna:

11:00. Puzgarriak frontoian. 11:30. Bizikleta karrera. 12:00. Koadrilen arteko jolas-poteoa. 13:00. Zezenak. 13:30. Paella txapelketa. 16:30. Poteoa. 18:00. Koadrilen arteko jolasak. Ondoren, aureskua eta zezenak. 23:30. Erromeria Ezten Giro taldearekin. 00:00. Playback txapelketa. 07:00. Txokolatada.

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **uztailak 22, 23, 24, abuztuak 1, 2, 3, 4.**

Burgoa Zuazo: **uztailak 18, 19, 20, 21, abuztuak 5, 6, 7.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 23 eta 30

BURGOA ZUAZO: abuztuak 6 eta 13

9:30 - 13:30







**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO Iribarren

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobilak: 699 975 206  
Tel-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOIA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzia**

943 191 383  
[berriketan@zuhatzia.com](mailto:berriketan@zuhatzia.com)



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



English Academy

**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba  
[rhorton4@yahoo.es](mailto:rhorton4@yahoo.es)

**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA





**AISIALDIAZ  
GOZATZEKO  
HAMAIKA ARRAZOI  
ETA MILA AUKERA...**



**HERRITIK ETA  
HERRIARENTZAKO  
EUSKARATIK ETA  
EUSKARAZI!**